

Euskaltzaindiko Bibliotekari akademiko berria da Torrealdai

DONOSTIA. Joan Mari Torrealdai da Euskaltzaindiko Bibliotekari akademiko eta Azkue Bibliotekako batzordeko buru berria, eta Miren Azkarate Argitalpen batzordeko kide berria. Euskaltzaindiak hala erabaki zuen aurreko ostiralean Donostian egindako bilkuran. Besteak beste, Jose Antonio Arana Martija zenaren utzitako hutsarteak betetzeko izendapenak egin zituen.

Joan Mari Torrealdai Foruan jaio zen 1942an. Teologian, Gizarte Zientzietan eta Informazio Zientzietan lizentziatua da eta Zientzia Politikoetan eta Soziologian doktore. Jakin aldizkariaren zuzendaria da eta euskaltzain oso izendatu zuten 2007an. Argitalpen batzordeko kide da eta 1977az geroztik landu duen lan bibliografikoak bi alor nagusi ditu: batetik, liburua bera gizarte adierazle gisa ulertuta liburugintzaren azterketa, eta bestetik, liburuen katalogoa, fitxa bibliografikoz osatua.

Miren Azkarate Donostian jaio zen, 1955ko azaroaren 27an. Euskal Filologian katedraduna da eta EHUko irakaslea. Euskaltzain oso izendatu zuten 1992an. Kultura sailburua izan zen Juan Jose Ibarretxe lehendakariarekin.